

PRESTA DEZAGUN GURE BARATZEA UDAZKEN-NEGURAKO

Proiektu ugari hasteko sasoia da oraingoa: haurrak eskolan hasten dira... eta baratzea dugunontzat ere kontuan izan beharreko sasoia da. Udazken-neguko baratzeak ez du ia lanik eskatzen, baina, horretarako, irailetik urrira erdira arte prestatu beharko dugu.

Sasoi honetan erein edo landatu daitezkeen barazkiak honako hauek dira:

- **Azalorea:** landare honen zati jangarria lorea da. Behin azalorea osatu denean, azkar jan behar da bestela, galdu egingo da. Hori dela eta, landarea erostera joaterakoan, 90, 120 eta 180 egunetako azaloreak erosiko ditugu; hau da, egun kopuruak zehaztuko du landare horrek behar dituen egunak azalorea sortzeko. Era honetan, udazken-neguosan zehar azaloreak izango ditugu.
- **Brokolia/Aza/Bruselaza:** azalorearen familia berekoak dira. Kasu honetan ordea, ezingo ditugu erosi modu mailakatuan produzitzeko (Bruselazak udaberri hasiera arte azak emango dizkigu etengabe). Hori dela eta, brokoliak eta azak modu mailakatuan landatzea komeni zaigu. Brokoliaren lore nagusia moztu ondoren, biltzeko brokoli txikiak emango dizkigu.
- **Ziazerbera:** neguko barazkia da, udan loratu / garatu egiten baita. Abuztu amaieran eta irailean ereiten da eta hil batzuetan zehar biltzeko aukera izango dugu.
- **Eskarola/txikoria:** hostodun barazkiak dira eta sukaldatuta edo entsaladan jan daitezke. Urri erdira arte landatu daitezke. Eskarolaren kasuan, bildu baino 15 egun lehenago, hostoak lotuko ditugu zuritu daitezen eta horrela, hosto samurragoak izango ditugu.
- **Porrua:** neguko hotzari ondo aurre egiten dion barazkia denez, negu osoan zehar jateko aukera izango dugu. Atal zuri ugaridun porruak lortzeko, landatzerakoan, ongi lurperatuko ditugu eta ondoren, hazten doazen heinean, harrotuz joango gara.
- **Kanonigoa/rukula:** hotza gogoko duten hostodun barazkiak dira. Neguko entsaladak atseginagoak egiten lagunduko digute. Ereite-lanak hotz handienak hasi aurretik egingo ditugu.
- **Letxuga:** hauek izango dira hurrengo udaberria heldu arte jango ditugun azkenengo letxugak.
- **Bestelako barazkiak:** apioa, borraja, erremolatxa, errefautxoak...

PREPAREMOS NUESTRA HUERTA PARA EL OTOÑO-INVIERNO

Ahora es la época en la que empezamos muchos proyectos, la vuelta al trabajo... y para los que tenemos huerta, también es una época que tendremos que tener muy en cuenta. La huerta de otoño-invierno no supone casi ningún trabajo, pero para ello, septiembre hasta mediados de octubre es la época en la que tendremos que prepararla.

He aquí las hortalizas que podremos plantar o sembrar en esta época:

- **Coliflor:** la parte comestible de esta planta es la flor. Una vez que se haya formado la coliflor, hay que comerla pronto, ya que si no, se irá estropeando. Por ello, a la hora de ir a comprar planta, compraremos coliflores de 90 días, 120 días, 180 días... esto es... el número de días determinará la cantidad de días que necesitará esa planta desde que se plante hasta que de la coliflor. De este modo, tendremos coliflores durante todo el otoño invierno.
- **Brócoli/col/col de Bruselas:** de la misma familia que las coliflores, en este caso, no tendremos la opción de comprar brócolis o coles que produzcan escalonadamente (la col de Bruselas nos irá dando coles continuamente hasta principios de primavera). Por ello, nos conviene ir plantando brócolis y coles escalonadamente. El brócoli, después de cortar la flor principal, nos dará pequeños brócolis que podremos recolectar.
- **Espinaca:** es una hortaliza de invierno, ya que en verano se sube a flor. Se siembra a finales de agosto y septiembre y podremos ir recolectándolo durante unos meses.
- **Escarola/achicoria:** son hortalizas de hoja que las podremos comer tanto en ensalada como cocinadas. Se pueden ir plantando hasta mediados de octubre. En el caso de la escarola, unos 15 días antes de recolectarlos, podremos atar sus hojas para que estas blanqueen y de este modo obtener hojas más tiernas.
- **Puerro:** hortaliza que aguanta muy bien el frío invernal por lo que los podremos degustar durante todo el invierno. Para obtener puerros con mucha parte blanca, a la hora de plantar los enterraremos bastante y después, los iremos aporcando según vayan creciendo.
- **Canónigo/rúcula:** hortalizas de hoja que prefieren el frío. Nos ayudarán a alegrar las ensaladas de invierno. Realizaremos la siembra antes de que empiecen los fríos más fuertes.
- **Lechuga:** estas serán las últimas lechugas de nuestra huerta que comamos hasta la siguiente primavera.
- **Otras hortalizas:** apio, borraja, remolacha, rabanitos...